BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

2293

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, burdina nodularra galdatzeko ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Usurbilgo udalerrian (Gipuzkoa) Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak sustatua.

AURREKARIAK:

2006ko abenduaren 29an, Juan Antonio Rodríguez Pérez jaunak, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Usurbilgo udalerrian (Gipuzkoa) burdina nodularra galdatzeko. Eskaerarekin batera, Usurbilgo Udalak eman zuen aldeko hirigintza-txostena (2005eko azaroaren 30ekoa) eta agiri tekniko hauek aurkeztu zituen:

- Oinarrizko proiektua (2006. urtea): memoria, eranskinak eta planoak.
- Laburpen ez-teknikoa (2006. urtea).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak, besteak beste, jarduerarako 1987ko maiatzaren 25eko baimena zuen, eta ondorengo eguneratzea, 2004ko otsailaren 23koa; eta zabaltzeko 1991ko maiatzaren 21eko baimena, eta ondorengo eguneratzea, 2003ko urriaren 22koa. Baimen horiek burdina nodularra galdatzeko eman ziren. Era berean, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: hondakin arriskutsuen ekoizleen baimena, 2004ko abenduaren 17koa, eta ondorengo eguneratzea, 2006ko otsailaren 24koa; industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa, 2002ko urtarrilaren 15ekoa; ibilgura isurtzeko baimena, 1993ko abenduaren 2koa (Victorio Luzuriaga, S.A. enpresaren izenean emana) eta 1998ko ekainaren 26koa (titulartasun-aldaketa Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresaren alde); ibaitik biltzeko emakida, 1981eko abuztuaren 20koa, eta produktu kimikoen biltegiratzeak abian jartzeko agiria, 2002ko abenduaren 11koa, hondakinen, isurketen, jabari hidrauliko publikora isurtzeko eta produktu kimikoak biltegiratzeko arloetan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Usurbilgo Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Ur Konfederazioari egin zitzaien eskaera.

2007ko martxoaren 30ean, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko azaroaren 8an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko martxoaren 3an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Usurbilgo Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Ur Konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 11n, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira. Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: jabari hidrauliko publikora (Oria ibaia) isurtzeko baimena, hondakin arriskutsuak sortzeko baimena, industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat lotesle izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedu-

rak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Usurbilgo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak, eta aplikatzeko den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak. Zehazki, galdaketaren sektorerako 2005eko maiatzeko BREF agiriaren edukia izan da kontuan (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry).

Gainera, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatzen eta betetzen duen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua aplika daiteke.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 10ean emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 29/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikatzeko den gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala Usurbilgo udalerriko (Gipuzkoa) Txiki Erdi auzoan (z.g.) eta IFK: F-20595955 zenbakia duen Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea Usurbilgo udalerrian burdina nodularra galdatzeko, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzekin.

Halaber, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago, hain zuzen ere 2.4 kategorian, «Burdina-metalen galdaketa, eguneko 20 tonatik gora ekoizteko ahalmena duena».

Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresaren instalazioak Usurbilgo udalerrian daude, industria-eremu gisa katalogatutako eremu batean.

Enpresaren jarduera automobilgintzarako burdina nodularrezko piezak fabrikatzea da (batik bat balazta-karkasak eta esekidura-besoak). Urteko ekoizpena 45.000 t/urtekoa da.

Ekoizte-prozesuak etapa hauek ditu: galdaketa, moldekatzea, argintza, mazarota-kentzea eta granailatzea, akabera eta bestelako prozesuak.

Lehengaien galdaketa (lingoteak, txapa, elementu aleatzaileak eta bestelako burdina-materialak) urtzeko labeetan egiten da. Urtzeko 4 labe elektriko, indukziozko, behe-maiztasuneko, eta maiztasun ertaineko indukzio-labe bat daude. Laneko ohiko erregimena behe-maiztasuneko 3 laberen eta maiztasun ertaineko labearen jardunari dagokie. Galda tratamendu-zalien bidez aldatzen da isurketa-unitateetara.

Moldekatze automatiko bertikaleko bi lerro daude, hareategi komun bat dutenak. Prozesuaren zati honen helburua «lubeta-ilara» bat osatzea da (hareazko masa errektangularrak erabiliz), bata bestearen kontra, bien arteko barnealdeak nahi den piezaren forma osa dezan. Galda eratutako zuloan isuri eta solidotzen uzten da. Erabilitako harea harea berria, harea erabilia (harea-berriztagunekoa), aurrenahasketa (bentonita + harrikatza), ura eta bestelako gehigarrien nahasketa prestatua da. Batzuetan, «lubetei» arrak eta iragazkiak jartzen zaizkie.

Arrak harea eta erretxina nahastuz prestatzen dira, eta nahasketa sei argintza-makinetan banatzen da. Erresistentzia egokia lortzeko, arrak ar-kutxan trinkotzen dira eta dimetiletilamina injektatzen da. Batzuetan isopropil-alkoholetan disolbaturiko zeramika-oinarriko pinturaz estali behar dira arrak.

Mazarota-kentzea piezetatik mazarotak eta elikadura-sistemak bereiztea da. Ondoren, granailatzea egiten da. Gaur egun granailatzeko bi makina jarraiki daude, eta beste bat etena.

Bizarrak kentzeko trokelak dituzten prentsak daude (akaberak). Ondoren, piezen kontrola egiten da.

Hona beste ekoizte-prozesu osagarri batzuk: tresnak konpontzea eta mantentze-lanak egitea, instalazioen eta bestelako zerbitzuen mantentze-lanak (argintza-prozesuan sortutako amina amina-araztegi batean araztea, instalazioak garbitzeko zerbitzuak, etab.).

Instalazioan energia hauek erabiltzen dira: energia elektrikoa (fabrikako instalazioen jardun orokorrerako, batez ere urtzeko labeetarako), gas naturala (xurgapenetan airea berotzeko, galda mantentzeko, erregogorra berotzeko errekuntza eramangarriko sistema, zaliak berotzeko eta lehortzeko, berogailu-sistema) eta gasolioa (orgatilen eta multzo elektrogenoaren jardunerako).

Guztira isuri atmosferikoen hogeita hamaika foku daude prozesu/etapa hauei lotuta: galdaketa (bi foku), harea-lanak eta desmoldekatzea (hiru foku), granailatzeko makinak (hiru foku), Disacool danborra (foku bat), hoztea (hamahiru foku), amina-neutralizatzailea (foku bat) eta argintza (zortzi foku).

Gainera, isuri barreiatuak sortzen dira galda urtzeko labeetatik galda-labeetara aldatzean.

Hondakin-uren isurketari dagokionez, bi isurtze-puntu daude:

● 1. isurtze-puntua: hozte-sistemako industria-urak, ur sanitario batzuk (galdaketakoak, akaberakoak eta bulego nagusietakoak) eta ekialdeko euri-ur «zikinak» (hodi-zorrotenak eta patioa) biltzen ditu.

● 2. isurtze-puntua: hondakin-ur sanitarioak (tailerreko bulegokoak) eta mendebaldeko euri-ur «zikinak» biltzen ditu soilik.

Hozte-zirkuituko fluxuei 2001eko abenduko Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems BREF agiria aplikatzen zaie.

Gaur egun, isurketa Oria ibaiaren adarra den errekasto batera egiten da, Lasarte-Oriako kolektore nagusira konektatzeko zain dagoen artean. Horretarako, enpresak eginak ditu beharrezko obrak ur sanitario eta euri-uren sarea bereizteko.

2005eko maiatzako Europako galdaketaren sektoreko BREF agiriak (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry) jasotzen dituen teknika erabilgarri onenen (TEO) artean hauek azpimarra daitezke: txatarra estalkipean biltegiratzea, txatar garbiak kargatzea, behe-maiztasuneko labe bat izatea, galdaketa-ziklo osoaren xurgapena eta mahuka-iragazkiarekin araztea, nodulizatze-prozesuan sortutako isuri atmosferikoen ke zati bat biltzea eta mahuka-iragazkiarekin araztea, isurtze-postuak biltzea eta araztea, tratamendu-lerroetako isuri atmosferikoak biltzea, xurgapena moldekatzean eta desmoldekatzean eta mahuka-iragazkiarekin araztea, hareen berreskuratze primarioa (berreskuratze-ratioak: % 98 arrik gabe eta % 98,5 arrekin), amina ar-desarragailuetan neutralizatzaile bidez xurgatzea eta zati bat araztea, xurgapena granailatzeko makinetan eta mahuka-iragazkiarekin araztea, kanpoko zarata--mailen kontrol-plana ezartzea (urteko neurketak), zarata murrizteko plan bat ezartzea (isilgailuak, prozesuak aldatzea, isolamenduak), estalkipean biltegiratzea, zorua ekortzeko makinaz garbitzea, ingurumena kudeatzeko sistema ezarri eta egiaztatzea, UNE-EN ISO 14001 arauaren arabera.

Bigarrena.– Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak Usurbilgo udalerrian altzairu moldekatua galdatzeko ustiapenerako ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.Aa enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresaren fabrika ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta zainduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Altzairu moldekatua galdatzeko instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa		UTM koordenatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	20000118-01	Galdaketa, 1. iragazkia eta maiztasun ertaineko indukzio-labea	25	1,57	B	2.3.1.	579233	472237
2	20000118-02	1. hareategia	11	1,12	C	3.3.2.	579216	472231
3	20000118-03	1. desmoldekatzea	11	1,12	C	3.3.2.	579220	472231
4	20000118-04	1. granailatzeko makina	11	0,89	C	3.12.	579223	472232
5	20000118-05	Hareategia eta 2. desmoldekatzea	25	1,50	C	3.3.2.	579247	472227
6	20000118-06	2 Disacool danborra	25	1,25	C	3.3.2.	579235	472225
7	20000118-07	2. granailatzeko makina	25	0,90	C	3.12.	579223	472222
8	20000118-08	1. hozteko tunela (1.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579274	472259
9	20000118-09	1. hozteko tunela (2.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579262	472256
10	20000118-10	1. hozteko tunela (3.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579251	472254
11	20000118-11	1. hozteko tunela (4.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579238	472252
12	20000118-12	1. hozteko tunela (5.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579227	472250
13	20000118-13	1. hozteko tunela (6.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579213	472247
14	20000118-14	2. hozteko tunela (1.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579265	472276
15	20000118-15	2. hozteko tunela (2.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579255	472274
16	20000118-16	2. hozteko tunela (3.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579245	472273
17	20000118-17	2. hozteko tunela (4.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579235	472271
18	20000118-18	2. hozteko tunela (5.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579226	472269
19	20000118-19	2. hozteko tunela (6.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579216	472267
20	20000118-20	2. hozteko tunela (7.a)	13	0,55	C	3.3.2.	579206	472265
21	20000118-21	Amina-neutralizatzailea	10	1,60	B	2.6.14.	579389	472296
22	20000118-22	SVA 16 argintza/karenatzea	12	0,3	B	2.6.14.	579327	472281
23	20000118-23	SVA 16 argintza/lanpostua	12	0,5	B	2.6.14.	579327	472276
24	20000118-24	SHA25 argintza/karenatzea	12	0,3	B	2.6.14.	579331	472283
25	20000118-25	SH25 argintza/lanpostua	12	0,6	B	2.6.14.	579332	472279
26	20000118-26	SVA 16 L argintza/karenatzea	12	0,3	B	2.6.14.	579338	472284
27	20000118-27	SVA 16 L argintza/lanpostua	12	0,5	B	2.6.14.	579339	472279
28	20000118-28	Argintza/Laempe karen. + postua	12	0,55	B	2.6.14.	579346	472282
29	20000118-29	4 AIMF argintza/lanpostua	12	0,6	B	2.6.14.	579358	472284
30	20000118-30	WST-18 granailatzeko makina jarraikia	3,5	0,4	C	3.12.	579349	472253
31	20000118-31	Galdaketa 2. iragazkia	26,5	1,60	B	2.3.1.	579258	472231
32	20000118-32	Harea-hozkailua	14	1,30	C	3.3.2.	--	--
33D	20000118-33D	Laborategiko fokua	--	--	Foku ez-sistematikoa		--	--
34D	20000118-34D	Multzo elektrogenoa	--	--	Foku ez-sistematikoa		--	--

32. fokuaren (harea-hozkailua) UTM koordenatuak aurkeztu behar dira.

Gainera, isuri barreiatu etenak sortzen dira galda urtzeko labeetatik galda-labeetara aldatzean.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Isuri atmosferikoek ondorengo balioak ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Foku zk.	Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Galdaketa, 1. iragazkia eta maiztasun ertaineko indukzio-labea	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
2	1. hareategia	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
3	1. desmoldekatzea	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
4	1. granailatzeko makina	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
5	Hareategia eta 2. desmoldekatzea	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
6	2 Disacool danborra	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
7	2. granailatzeko makina	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
8	1. hozteko tunela (1.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
9	1. hozteko tunela (2.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
10	1. hozteko tunela (3.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
11	1. hozteko tunela (4.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
12	1. hozteko tunela (5.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
13	1. hozteko tunela (6.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
14	2. hozteko tunela (1.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
15	2. hozteko tunela (2.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
16	2. hozteko tunela (3.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
17	2. hozteko tunela (4.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
18	2. hozteko tunela (5.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
19	2. hozteko tunela (6.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
20	2. hozteko tunela (7.a)	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
21	Amina-neutralizatzailea	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
		Aminak	20 mg/Nm^3
22	SVA 16 argintza/karenatzea	Aminak	20 mg/Nm^3
23	SVA 16 argintza/lanpostua	Aminak	20 mg/Nm^3
24	SHA25 argintza/karenatzea	Aminak	20 mg/Nm^3
25	SH25 argintza/lanpostua	Aminak	20 mg/Nm^3
26	SVA16 L argintza/karenatzea	Aminak	20 mg/Nm^3
27	SVA 16 L argintza/lanpostua	Aminak	20 mg/Nm^3
28	Argintza/Laempe karenatzea + postua	Aminak	20 mg/Nm^3
29	4 IMF argintza/lanpostua	Aminak	20 mg/Nm^3
30	WST-18 granailatzeko makina jarraikia	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
31	Galdaketa 2. iragazkia	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
32	Harea-hozkailua	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien %25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, %40 gain-

ditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen %6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, %25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

Ezarritako IMBak lortzen ez badira, beharrezko neurri zuzentzaileak hartuko dira (arazketa-sistemak instalatzea, eta abar) isuri atmosferikoen balio horiek betetzen direla ziurtatzeko.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondar-gasak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isuri barreiatuak murrizteko, isuriak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien mantentze-lan zuzenak egingo dira, eta gainera, beste jarduera hauek: instalazioak egunero eta astero garbitzea, kanpoko ateak ixtea, etab., isuri horiek murrizten direla ziurtatzeko. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.1.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Burdinurtzea.

Jarduera-taldea: Metala.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-2751.

Isurketa -puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzaileare n kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industrialak	Hozte-sistema: dorrearen purga	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa	I. kategoria	X: 579578 Y: 4792237
1	Industrialak	Hozte-sistema: zirkuitua hustea	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa	I. kategoria	X: 579578 Y: 4792237
1	Industrialak	Hozte-sistema: laser bidez hoztea Press_Pour-en (bi galda-labe)	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa	I. kategoria	X: 579578 Y: 4792237
	Industrialak	Hozte-sistema: hareategiko aldizkako garbiketak	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa		
	Sanitarioak	Galdaketa-eremuko komunak eta aldagelak	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa		
		Akabera-eremuko komunak eta aldagelak	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa		
		Bulego nagusietako komunak eta aldagelak	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa		
	Euri-ur zikinak	Ekialdeko hodi-zorrotenetako eta patioko euri-urak	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa		
2	Sanitarioak	Tailerreko bulegoetako komunak eta aldagelak	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa	I. kategoria	X: 579486 Y: 4792244
	Euri-ur zikinak	Mendebaldeko hodi-zorrotenetako eta patioko euri-urak	Izenik gabeko errekastoa, Oria ibaiaren adarra	Oria ibaiaren arroa		

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: industria-urak, hozte-zirkuituaren purgak.

Orduko puntako emaria	1,02 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	24,48 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	5.140 m^3/urte

b) 2. isurketa: industria-urak, hozte-zirkuituaren hustuketak.

Orduko puntako emaria	3,1 m^3/h
Urteko gehienezko bolumena	220 m^3/urte

c) 3. isurketa: industria-urak, laser bidez hoztea Press-Pour-en.

Orduko puntako emaria	1,27 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	30,48 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	6.400 m^3/urte

d) 4. isurketa: industria-urak, hareategiko aldizkako garbiketak (hozte-sistemari lotutako isurketa).

Orduko puntako emaria	5,6 m3/h
Urteko gehienezko bolumena	400 m3/urte

e) 5. isurketa: ur sanitarioak.

Eguneko gehienezko bolumena	33,82 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	7.102 m^3/urte

f) 6. isurketa: kutsatuta egon daitezkeen euri-urak.

Orduko puntako emaria	13,93 m^3/h
Urteko gehienezko bolumena	122.000 m^3/urte

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgura egiten den isurketaren ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soil-soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

a) 1. isurtze-puntua.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	160 mg/l
Guztizko fosforoa ($P_{guztizkoa}$)	10 mg/l
Zinka (Zn)	2 mg/l
Konposatu organiko halogenatuak (AOX)	0,5 mg/l
Hondar-kloro aske baliokidea bezalako oxidatzaileak	0,3 mg/l
Burdina	2,0 mg/l
pH-a	5,5-9,5
Solido esekiak (SE)	80 mg/l
Oxigeno-eskari biologikoa (OEB_5)	40 mg/l
Olioak eta koipeak (O. eta K.)	20 mg/l

b) 2. isurtze-puntua.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
Solido esekiak (SE)	80 mg/l
Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	160 mg/l
Oxigeno-eskari biologikoa (OEB_5)	40 mg/l
Olioak eta koipeak (O. eta K.)	20 mg/l

Tenperatura: ibilguan 1,5 ºC-tik beherako gehikuntza.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak tratamendu egokia instalatu beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek baldintza honetan berariaz aipatutako substantzien isurketak bakarrik hartzen ditu barne eta, batez ere, Uraren abuztuaren 2ko 29/1985 Legeko Atariko, I, IV, V, VI eta VIII. Tituluak garatzen dituen Jabari Publikoko Urguneen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen duen maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen substantzia arriskutsuak.

Hozte-zirkuituak husteko arautze egoki baten bidez kontuan hartu eta bermatu behar den protokoloa hauxe da:

1.– Husteko gutxieneko denbora: 72 ordu.

2.– Hondar-kloro askea erreaktiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, etab. ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

3.– Putzuaren hondoan metatutako lohiak kendu eta hustea, hori isurtzea derrigorrez saihestu behar baita.

B.1.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek hondakin-ur sanitarioak tratatzeko lau hobi septiko izango dituzte funtsean, horiek ibilgura isuri aurretik. Inguruan aurreikusitako saneamendu-kolektore nagusia abian jartzen den unean, ur horiek bertara gehituko dira derrigorrez.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Victorio Luzuriaga-Usurbil S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan, isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik, eta behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Kutxeta bat jarriko da isurtze-puntu bakoitza kontrolatzeko; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzeneko lekuan kokatuko dira. N-634 errepideko euri-uren karakterizazioa egiteko laginak hartzeko kontrol-kutxeta bat ere jarriko da, horiek jarduerak sortutako ur-fluxuekin konektatu aurretik.

B.1.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, hauxe da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien kontrol-kanona = $V \times P_u$.

$P_u = P_o \times K_m$.

$K_m = K_2 \times K_3 \times K_4$.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_o = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

K_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

Isurketa: industria-erabilerako urak (1+2+3+4+6. isurketak):

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Industriala K_2: gai arriskutsuekin K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria-eremua: I	V = 134.160 m^3 / urte P_o = 0,03005 €/m^3 K_2 = 1,28 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

K_m = 1,28 × 0,5 × 1,25 = 0,800000.

P_u = 0,03005 × 0,800000 = 0,024040 euro/ m^3.

IKK = V × P_u = 134.160 × 0,024040 = 3.225,21 euro.

Isurketa: erabilera higienikoko urak (5. isurketa):

V: Bolumena: P_o: Hirikoa K_2: 1.999 biztanle baliokide arte K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria-eremua: I	V = 7.102 m^3 / urte P_o = 0,01202 €/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

K_m = 1,0 × 0,5 × 1,25 = 0,625000.

P_u = 0,01202 × 0,625000 = 0,007513 euro/ m^3.

IKK = V x P_u = 7102 × 0,007513 = 53,36 euro.

Isurien kontrol-kanona guztira = 3.225,21 + 53,36 = 3.278,57 euro/urte.

Zenbateko hori ez da aldatuko isurtzeko baimena edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, titularrari urte horri dagokion likidazioa bidaliko zaio.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen jarioak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Usurbilgo Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «galdaketa».

Prozesu honetan sortzen diren hondakin arriskutsuak beste prozesu batzuetako izen bereko beste batzuekin kudeatzen dira; batera kodifikatuta agertuko dira Zerbitzu Orokorrak prozesuan.

● 2. prozesua: «Moldekatzea».

Prozesu honetan sortzen diren hondakin arriskutsuak beste prozesu batzuetako izen bereko beste batzuekin kudeatzen dira; batera kodifikatuta agertuko dira Zerbitzu Orokorrak prozesuan.

● 3. prozesua: «Argintza».

Prozesu honetako gasak arazteko instalazioan «neutralizatzaileko ur fosfatatuak» sortzen dira, eta Gas Efluenteak Araztea prozesuaren barruan daude. Mantentze-lanetako hondakin arriskutsuak ere sortzen dira, eta beste prozesu batzuetako izen bereko beste batzuekin kudeatzen dira; batera kodifikatuta agertuko dira Zerbitzu Orokorrak prozesuan.

● 4. prozesua: «Akabera».

○ 1. hondakina: «Taladrinak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13//L9//C51//H5//A231//B3144.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 17,4 tona.

Prentsetan bizar-kentzeko eragiketetan taladrina erabiltzean hondakin gisa sortzen da; emultsio oliotsu bat da. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den postuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

● 5. prozesua: «Gas efluenteak araztea».

○ 1. hondakina: «Galdaketako xehekiak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/5/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//R4//S25//C7//H14//A231//B0011.

– EHZ: 100909.

– Urtean sortutako kantitatea: 628,53 tona.

Galdaketa-gasen arazketan sortzen da; mahuka-iragazkiak zein zikloiak sortzen duten zink-partikuladun hautsa da. Hondakinarentzat identifikatutako big-bagean jasotzen da gas efluenteak arazteko instalazioan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Iragazkien mahuka erabiliak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/5/2.

– Hondakinaren kodea: Q9//R13//S35//C7//H14//A231//B0011.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kg.

Mahuka-iragazkiak aldatzerakoan sortzen da galdaketa-gasak arazteko instalazioan; zink-partikulez kutsatutako iragazkiak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «Neutralizatzaileko ur fosfatatuak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/5/3.

– Hondakinaren kodea: Q9//D9//L29//C23//H8//A231//B0011.

– EHZ: 060104.

– Urtean sortutako kantitatea: 72,52 tona.

Gas-garbigailuko disoluzioa birjartzean sortzen da; azido fosforikoa du. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den postuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

● 6. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio erabiliak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A231//B0019.

– EHZ: 130110.

– Urtean sortutako kantitatea: 4,26 tona.

Ekipo eta/edo instalazioetan olioa birjartzean sortzen da Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuan; olio hidrauliko eta mekaniko erabiliak dira. Makinen mantentze-lanak egitean hondakin horrentzat identifikatutako bidoian biltzen da, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Metal astunak dituzten pilak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C7/16/22//H14//A231//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kilogramo.

Pila agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da, eta eraginkorragoa denez, taldeka biltzen dira; merkurioa, zinka eta bestelako metal-oxidoak dituzten pilak dira. Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira horretarako berariazko eremuan.

○ 3. hondakina: «Lanpara fluoreszenteak, merkuriozkoak eta sodiozkoak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16/H6/14//A231//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 110 kilogramo.

Lanparak birjartzean sortzen da Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuan; merkurioa edo sodioa duten lanparak dira. Hondakinarentzat identifikatutako kutxan biltzen dira eta zuzenean erretiratzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 4. hondakina: «Ekipo ofimatikoak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/4.

– Hondakinaren kodea: Q14//R13//S40//C6/18//H6/14//A231//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Ekipo elektrikoak eta elektronikoak birjartzean sortzen da; baztertutako ekipo ofimatikoak dira. Hondakinarentzat identifikatu den eremuan jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 5. hondakina: «Hondakin sanitarioak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/5.

– Hondakinaren kodea: Q16//D14//S1//C35//H9//A231//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 4 kilogramo.

Zerbitzu Medikoa azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaileak eta zorrotzak dira. Edukiontzi hermetiko batean biltzen da, botikinean; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio kudeatzaile baimenduari.

○ 6. hondakina: «200 litroko metalezko bidoiak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/6.

– Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C51//H5//A231//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.638 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; olioak eduki dituzten metalezko ontziak dira. Hondakinarentzat identifikatutako toki batean biltzen da hondakin-biltegian.

○ 7. hondakina: «Metalezko bidoi hutsak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/7.

– Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C51//H5//A231//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 250 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; gai arriskutsuak eduki dituzten metalezko ontziak dira. Hondakinarentzat identifikatutako toki batean biltzen da hondakin-biltegian.

○ 8. hondakina: «Plastikozko bidoi hutsak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/8.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A231//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 230 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; gai arriskutsuak eduki dituzten metalezko ontziak dira. Hondakinarentzat identifikatutako toki batean biltzen da hondakin-biltegian.

○ 9. hondakina: «Sprai hutsak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/9.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S-G36//C41//H3B//A231//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 530 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; likido sarkorrak eduki dituzten aerosolak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 10. hondakina: «Olioz bustitako materialak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/10.

– Hondakinaren kodea: Q6//D15//S34//C51//H5/6//A231//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 3.500 kilogramo.

Xurgatzaileak eta ehunkiak biltzean sortzen da; olioz eta disolbatzailez zikindutako trapuak eta material xurgatzailea dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 11. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatua».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/11

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3B/5//A231//B0019

– EHZ: 140603

– Urtean sortutako kantitatea: 525 kilogramo

Piezak eta tresnak garbitzean sortzen da; olio- eta koipe-hondarrak dituen disolbatzaile erabilia da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den instalazioan. Puntu horretatik erretiratzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 12. hondakina: «Berunezko bateriak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/12.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23/H8//A241//B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo.

Orgatila elektrikoetako bateriak birjartzean sortzen dira. Ez dira ontziratzen, soltean biltegiratzen dira pabiloiaren barruan bertan, kudeatzaile baimenduari entregatu arte.

○ 13. hondakina: «PCB duten transformadoreak eta tresnak».

– Identifikazioa: A20595955/2000001168/6/13.

– Hondakinaren kodea: Q12//D15//S10//C32/51/H6/7//A241//B0019.

– EHZ: 160209.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

PCBz kutsatutako tresnak erretiratzean sortzen da. Kudeatzaile baimendu batek biltzen du.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko

833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete gora biltegiratu.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokidea, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak.

k) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

l) Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

m) Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

n) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

p) Aurreko f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), n) eta o) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

q) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

r) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak 108/1991 Errege Dekretuan, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Zepak	100903	Galdaketa	7.974,2 t/urte
Erregogorra	161104	Galdaketa	
Hareak	100906	Desmoldekatzea	1.052,68 t/urte
Iragazkiko xehekiak	100910	Gas efluenteak garbitzea	7.974,2 t/urte
Granaila-xehekiak	100910	Akabera	2.411,42 t/urte
Kartoia	150101	Zerbitzu Orokorrak	131 t/urte
Plastikoa	150102	Zerbitzu Orokorrak	9,92 t/urte
Zura	150103	Zerbitzu Orokorrak	110,75 t/urte
Metal ferrikoak	200140	Galdaketa	143,53 t/urte

a) Enpresak zepak eta erregogorra gaika biltzeko sistema bat ezarriko du.

b) Ebazpen honen B.1.3 atalak hondakinen kudeaketarako printzipio hierarkikoei buruz dioenaren arabera, harea berdez moldekatzeko prozesuko hareak eta hareategiko xehekiak kudeatzeko, baliotu egingo dira eta ez dira hondakindegian utziko. Baliotzea ez beste modu batera kudeatzen bada, Sailburuordetza honen aurrean aurkeztu beharko da proposamena.

c) «Hareak», «iragazkiko xehekiak», «granaila-xehekiak» eta «erregogorra» hondakinen kasuan, hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela ezartzen bada, ebazpen honetako B.1.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

d) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

e) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

f) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

g) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

h) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

i) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta g) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak jarduketa hauek burutu beharko ditu:

● Orgatilak erregaiz betetzean sortzen diren jarioak ezabatu, eta gertatzen badira bildu, euriurak arrasta ditzan saihesteko.

● Produktu kimikoen biltegiak kokatzeko lekuari buruzko azterlan bat egin, horiek euri-uren utxetetatik hurbil egotea saihesteko.

● Ontziz aldatzeko eremua zolatu biltegiratzeko eremuaren hegoaldeko alboan, euri-uren isurketan solido esekiak gehitzea saihesteko, eta aldi berean, eremuan ustekabean isuritako kutsatzaileen perkolazio-arriskua saihesteko.

● Sistematika bat ezarri instalazioen egoera egokia ziurtatzeko, ingurumenerako arriskuak kontrolatuta izatearren.

Gomendio hauek kontuan izango dira gainera:

● Hautsezko materialak arrastatzea murriztuko da, honelako neurri orokorrak ezarriz:

○ Hautsezko gaiak siloetan, pabiloi barruan, edo horrelakorik ezean, haizetik hobekien babestutako guneetan biltegiratu.

○ Haize gogorra dabilenean hautsezko solidoak manipulatzea saihestu.

○ Materialak deskargatzeko garaiera mugatu.

● Isurketek, jarioek edo ihesek kaltetu ditzaketen lur zatiko gainazal guztiak zolatuak eta iragazgaiztuak egongo dira.

● Isurketak, jarioak edo ihesak eragozteko moduan biltegiratuko dira lehengaiak, erregaiak eta produktuak.

Era horretan, ontzi mugikorretan zein finkoetan biltegiratutako produktu kimiko likido guztiek (batez ere gai eta prestakin arriskutsuak) eta biltegiratutako erregai likidoek jarioak biltzeko sistema izango dute.

Produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudiak eragindako biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Petrolio-instalazioei buruz indarrean dagoen araudiaren mendeko biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Egiaztapen horiek egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

● Hondakinak B.1.3.1 eta B.1.3.2 ataletan adierazitako jarraibideen arabera biltegiratuko dira.

● Hondakin metalikoak barruan edo, hala ezin bada, estalkipean biltegiratuko dira, lixibiatuak lurzorura eta uretara ahalik eta gutxien heltzeko.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

B.1.6.– Paisaiarekin lotutako baldintzak.

Aurkeztutako eskaeraren arabera, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak neurri hauek hartuko ditu paisaia babesteko:

- Mantentze-lanetarako bi pertsona izatea ingurunearen mantentze-lanak egiteko.
- Zuhaitz eta lorategien mantentze-lan egokia.
- Enpresa aldizka pintatzea.
- Erabiltzen ez diren eraikinen mantentze-lan egokia.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20000118-01	Galdaketa, 1. iragazkia eta maiztasun ertaineko indukzio-labea	Guztizko partikulak	Urtero
			Dioxinak eta furanoak (PCDD/PCDF)	Neurketa lehen urtean
2	20000118-02	1. hareategia	Guztizko partikulak	3 urtetik behin
3	20000118-03	1. desmoldekatzea	Guztizko partikulak	3 urtetik behin
4	20000118-04	1. granailatzeko makina	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
5	20000118-05	Hareategia eta 2. desmoldekatzea	Guztizko partikulak	3 urtetik behin
6	20000118-06	2. Disacool danborra	Guztizko partikulak	3 urtetik behin
7	20000118-07	2. granailatzeko makina	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
8	20000118-08	1. hozteko tunela (1.a)	Guztizko partikulak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	5 urtetik behin
9	20000118-09	1. hozteko tunela (2.a)	Guztizko partikulak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	5 urtetik behin
10	20000118-10	1. hozteko tunela (3.a)	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
11	20000118-11	1. hozteko tunela (4.a)	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
12	20000118-12	1. hozteko tunela (5.a)	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
13	20000118-13	1. hozteko tunela (6.a)	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
14	20000118-14	2. hozteko tunela (1.a)	Guztizko partikulak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	5 urtetik behin
15	20000118-15	2. hozteko tunela (2.a)	Guztizko partikulak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	5 urtetik behin
16	20000118-16	2. hozteko tunela (3.a)	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
17	20000118-17	2. hozteko tunela (4.a)	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
18	20000118-18	2. hozteko tunela (5.a)	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
19	20000118-19	2. hozteko tunela (6.a)	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
20	20000118-20	2. hozteko tunela (7.a)	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
21	20000118-21	Amina-neutralizatzailea	Guztizko partikulak Aminak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	5 urtetik behin
22	20000118-22	SVA 16 argintza/karenatzea	Aminak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	3 urtetik behin
23	20000118-23	SVA 16 argintza/lanpostua	Aminak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	3 urtetik behin
24	20000118-24	SHA 25 argintza/karenatzea	Aminak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	3 urtetik behin
25	20000118-25	SHA25 argintza/lanpostua	Aminak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	3 urtetik behin
26	20000118-26	SVA 16 L argintza/karenatzea	Aminak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	3 urtetik behin
27	20000118-27	SVA 16 L argintza/lanpostua	Aminak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	3 urtetik behin
28	20000118-28	Argintza/Laempe karenatzea + postua	Aminak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	3 urtetik behin
29	20000118-29	4IMF argintza/lanpostua	Aminak Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	3 urtetik behin
30	20000118-30	WST-18 granailatzeko makina jarraikia	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
31	20000118-31	Galdaketa 2. iragazkia	Guztizko partikulak	Urtero
			Dioxinak eta furanoak (PCDD/PCDF)	Lehen urtean
32	20000118-32	Harea-hozkailua	Guztizko partikulak	5 urtetik behin

Aurreko atalean aipatutako aldizkako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurien kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Agiri horiek eguneratuta egongo dira, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Analisi hauek egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	● Industrialak, hozte-zirkuitukoak (purgak, hustuketak, laser bidezko hoztea Press-Pour-en eta hareategiko aldizkako garbiketak) ● Sanitarioak (galdaketako komunak eta aldagelak, akaberetako komunak eta aldagelak, eta bulego nagusietako komunak eta aldagelak) ● Ekialdeko euri-urak («zikinak»)	X = 579.578 Y = 4792237	Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Guztizko fosforoa (Pguzt)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Zinka (Zn)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Konposatu organiko halogenatuak (AOX)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Hondar-kloro aske baliokidea bezalako oxidatzaileak	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Burdina	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			pH-a	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Solido esekiak (SE)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
				Hilerokoa	Barne-kontrola
			Oxigeno-eskari biologikoa (OEB5)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Olioak eta koipeak (O. eta K.)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
2	● Sanitarioak (tailerreko bulegoetako komunak eta aldagelak) ● Mendebaldeko euri-urak («zikinak»)	X = 579486 Y = 4792244	pH-a	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Solido esekiak (SE)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
				Hilerokoa	Barne-kontrola
			Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Oxigeno-eskari biologikoa (OEB5)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)
			Olioak eta koipeak (O. eta K.)	Sei hilekoa	Kanpo-kontrola (Arroko Erakundearen erakunde laguntzaileak)

Gainera, maiztasun berarekin N-634 errepideko euri-uren kalitatea kontrolatu beharko da horiek enpresak sortutako ur-fluxuekin konektatu aurretik. Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK), solido esekiak (SE) olioak eta koipeak (O. eta K.), burdina (Fe) eta zinka (Zn) parametroak kontrolatuko dira.

Halaber, azken isurketako bi puntuetako eta errepideko euri-uren solido esekiak kontrolatuko dira hilero, enpresaren ekarpen errealak egiaztatzearren.

Bestetik, zirkuitu eta putzuen hustuketetako fluxuak isuri aurretik, parametro hauek analizatuko dira: oxigeno-eskaera kimikoa (OEK), guztizko fosforoa (Pguzt), zinka (Zn), konposatu organiko halogenatuak (AOX) eta hondar-kloro aske baliokidea bezalako oxidatzaileak.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 255. art.) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko uremariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

b) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen diren aldian egingo dira beti, eta sei hilekoek lehenengo euriekin bat etorri beharko dute.

c) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

d) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan ekoizte-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Metal likidoa	t	Metal likidoa	t
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● txatarrak, ● lingoteak ● ferroaleazioak	t	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● txatarrak, ● lingoteak ● ferroaleazioak	t
	Harea-kontsumoa	t	Harearen berreskuratze-maila	% (t/t)
Energia kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	Kwh	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh (%)
Energia kontsumoa	Elektrizitate-kontsumoa	Kwh	Elektrizitate-kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	
	Energiaren guztizko kontsumoa	Kwh	Energia espezifikoa (kontsumitutako energia / metal likidoa)	Kwh/Kwh (%)
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m3	Ur-kontsumoa	m^3
Uretara egindako isurketak	Industria-isurketak/Oriaren ibaiadarra	m^3	Industria-isurketak/Helmuga	m^3
			Industria-isurketak/Metal likidoa	/t metal likido
	Euri-uren isurketa/Oriaren ibaiadarra	m^3	Euri-uren isurketa/Helmuga	m^3
	Zn (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurtze-puntua	mg/l	Zn (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketa-puntua	mg/l
	Konposatu organiko halogenatuak (AOX) (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua)/1. isurtze-puntua	mg/l	Konposatu organiko halogenatuak (AOX) (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua)/1. isurketa-puntua	mg/l
	Hondar-kloro aske baliokidea bezalako oxidatzaileak (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua)/1. isurtze-puntua	mg/l	Hondar-kloro aske baliokidea bezalako oxidatzaileak (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua)/1. isurketa-puntua	mg/l
	Burdina (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurtze-puntua	mg/l	Burdina (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketa-puntua	mg/l
Isuri atmosferikoak	Partikula solidoen isuria (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1-21 eta 30-32. fokuetarako, denak barne	mg/Nm3	Partikula solidoen isuria	mg/Nm3
	Partikula solidoen isuria	Kg	Partikula solidoen isuria	Kg
			Partikula solidoen isuria/metal likidoa	Kg/t
	Amina-isuriak KOG gisa (max, min, batez bestekoa, lagin kopurua) / 21-29. fokuetarako, biak barne	mg/Nm3	KOG gisa isuritako aminak	mg/Nm3
	Guztizko amina-isuriak	Kg	Guztizko amina-isuriak	Kg
	Dioxina-isuriak (neurketa puntuala 1. eta 31. fokuetan)	mg/Nm3	Dioxina-isuriak	mg/Nm3
Hondakinak	Arazketa-sistemetan jasotako xehekien kantitatea	t	Arazketa-sistemetan jasotako xehekien kantitatea / metal likidoa	t/t
	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea/metal likidoa	t/t
	Hondakin arriskutsu baliotuak	t	Hondakin arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin arriskutsuak	t/t (%)
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t
			Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua/metal likidoa	t/t
	Hondakin ez arriskutsu baliotuak	t	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak (konposizio-hondarrak, …)	t/t (%)
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	t/t (%)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/ urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kop.	Kopurua/urte
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/ urtea	Ekoscan/ Urtea eta/edo ISO14001/ Urtea eta/edo EMAS/ Urtea	Bai/Ez Zein/ urtea

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ikuskatzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, txosten batekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Gipuzkoako Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Abendurako eta abuzturako programatutako mantentze-lanei dagokienez, enpresak sor litezkeen isuri eta hondakinen balioespena egin beharko du, eta horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamen bat, hala badagokio.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera ondorengo hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (275. epigrafea «Metalen galdaketa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Gasolioa, erretxinak, katalizatzaileak, olioak, taladrinak, disolbatzaileak, pinturak, eta abar, eta orokorrean, instalazioan sortutako hondakinak, besteak beste, maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohantzea garbituko du, garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuz.

j) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

k) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

l) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu horretan, baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Ebazpen honen B.1.4 atalean deskribatutako jarduketez gain, gasolioa biltegiratzeko eta maneiatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, haustura, ustekabeko gainezkatze, eta abarrengatik gerta daitezkeen jarioei aurre egiteko.

Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

m) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa ditzaketen substantzia, erregai edo hondakinen isurketa garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari.

n) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

o) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www-eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1 f) (hondakin arriskutsuak onartzeko agiriak); B.1.3.1 n) (hondakin arriskutsuak erregistratzeko eredua); B.1.3.1 l) (PCB izatearen adierazpena); B.1.3.2 a) (hondakin arriskutsuak gaika biltzeko proposamena); B.1.3.2 b) (berdez moldekatzeko harea eta hareategiko xehekiak baliotzeko proposamena); B.1.3.2 c) (EHZen ispilu-sarrera duten hondakinen karakterizazioa); B.1.3.2 f) (hondakin ez-arriskutsuak onartzeko agiriak); B.1.3.2 h) (hondakin ez-arriskutsuak erregistratzeko eredua); B.1.4 (lurzorua babesteko neurriak ezartzeko proposamena); C.1 (isuri atmosferikoen kontrola, behar bada); C.1.1 (isuri atmosferikoak erregistratzeko eredua); C.4 (zarata neurtzeko proposamen zehatza); C.6 (ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (mantentze-lanetako isuri eta hondakinen balioespena); D.3 g) (produktu kimikoak biltegiratzeko instalazioen egiaztagiria); D.3 h) (larrialdi-kasuetarako material-zerrenda eta babes pertsonalerako ekipoak); eta D.3 o) (suteen aurkako babeserako instalazioen egiaztagiria).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Atal honetako baldintza guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresak ebazpen honen xede den altzairu moldekatua galdatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresari, Usurbilgo Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondorengoetan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.